

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Arabako Mendialdeko Kuadrillak antolatutako jarduerak eta ikastaroak arautzen dituen ordenantza fiskala behin betiko onartzea

Jendaurrean egon den aldian ez da ez erreklamaziorik ez alegaziorik aurkeztu, iragarkia 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn (40. zk.) argitaratu zenetik aurrera. Ordenantza hori Arabako Mendialdeko Kuadrillako Batzarrak onartu zuen, 2026ko martxoaren 25ean egindako ezohiko bilkuran, eta behin betiko onartu zen Arabako Mendialdeko Kuadrillak antolatutako jarduerak eta ikastaroak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

Santikurutze Kanpezun, 2026ko maiatzaren 25ean

Presidente

EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAK ANTOLATUTAKO JARDUERAK ETA IKASTAROAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

KONTZEPTUA

1. artikulua

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 41. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, Arabako Mendialdeko Kuadrillak prezio publikoa ezartzen du Kuadrillak eskaintzen dituen kultura-, kirol-, aisia-, berdintasun- eta euskara-jardueren truke. Prezio horiek prezio publikoen ordenantza fiskal honen arabera aplikatuko dira.

ORDAINTZERA BEHARTUTA DAUDEN PERTSONAK

2. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude aurreko artikuluan aipatutako Arabako Mendialdeko Kuadrillak antolatutako jarduera eta ikastaroetan matrikulatzen direnak.

SORTZAPENA

3. artikulua

Ordaindu beharra sortzen da prezio publikoa ordaindu beharra dakarren zerbitzua erabiltzeko eskatzen den unean bertan.

ORDAINKETA

4. artikulua

Ordainketa zerbitzua eskatzen den unean bertan egingo da, edo zerbitzu horretan parte hartuko duela berresten eta jakinarazten zaion unean, ordaindu beharreko zerbitzuaren arabera.

Kasu bakoitzean, eskuragarri dauden ordainketa-metodoen berri emango da.

ZENBATEKOA

5. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoaren zenbatekoa I. Eranskinean jasotako tarifetan finkatuko da, jardueren eta iraupenaren arabera.

INSKRIPZIOAK

6. artikulua

Jarduera horietarako eskabideak edo inskripzioak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan egiten dira, telefonoz, postaz edo erakundearen webgunearen edo egoitza elektronikoaren bidez, kasu bakoitzeko arau partikularren arabera.

ITZULKETAK

7. artikulua

Azkenean inskribatutako pertsonak ezin badu jarduera egin, jarduera hasi baino lehen jakinarazi beharko du.

Jarduera hasi baino 15 egun lehenago jakinarazten bada gertaera hori, zenbatekoarenekin 60 itzuliko da, eta gainerako ehuneko 40a atxikiko da kudeaketa-gastu gisa.

Jakinarazpena epe horretatik kanpo egiten bada, ordaindutako zenbatekoa galduko da.

Itzulketarik egiten bada, banku-kontuan sartu beharko da.

ETETEA ETA EZEREZTEA

8. artikulua

Gutxieneko inskripzio-kopuru batera iristen ez diren jarduerak eten ahal izango dira.

Gutxieneko inskripzio-kopurua jarduera bakoitzaren baldintzetara egokituko da, eta teknikariek ezarriko dute beti.

Gutxieneko inskripzio-kopurura ez iristeagatik eteten bada, horren berri emango zaio interesdunari, inskripzioak itxi eta hurrengo 15 egunetan, eta plaza librearen egonez gero, alternatibak eskainiko dira.

Gutxieneko inskripzio-kopurura ez iristeagatik eteten bada eta eskainitako alternatibei uko egiten bazaie, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 100 itzuliko da banku-kontuan sartuta.

Inskribatutako pertsonekin zerikusirik ez duten eta gerora sortutako inguruabarrengatik eteten bada, prezio publikoa itzuliko zaie ordaintzeko erabilitako metodo beraren bidez, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 100 edo zati proportzionala zerbitzua hasi bada.

9. artikulua

Inskribatutako pertsonekin zerikusirik ez duten eta gerora sortutako inguruabarrengatik eteten bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 100 itzuliko zaie banku-kontuan sartuta.

HOBARIAK

10. artikulua

Prezio normala edo murriztua jasotzeko eskubidea izateko, inskribatu beharreko pertsonak baldintza guztiak bete beharko ditu inskripzioa egin aurretik.

Langabezian daudela egiaztatzen duten pertsonak ehuneko 15eko murrizketa izango dute ordenantza honetan araututako prezio publikoaren zenbatekoan, ordenantzaren tarifen arabera. Langabezian egoteagatik prezioa murriztu ahal izateko, pertsonak agiri hauetako bat aurkeztuta justifikatu egin beharko du: LANBIDEren inskripzio-aldien ziurtagiria edo inskripzio-aldien txostena. Agiri hori ordainketa egin aurreko zazpi egunetan eskuratu behar da, gehienez ere. Agiri hori izena emateko unean aurkeztu beharko da, bai aurrez aurre, bai Kuadrillako teknikariek ematen dituzten bitartekoen bidez.

Bizikidetza-unitate bereko neba-arrebek jarduera berean izena ematen badute, ehuneko 10eko deskontuak jaso ahal izango dituzte bi neba-arreba bakoitzeko, eta ehuneko 20koa hiru neba-arreba bakoitzeko. Horretarako, errolda kolektiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, ordainketa egin aurreko astean eskuratu.

Familian harrera-egoeran dauden adingabeei hobariak aplikatzeko, bizikidetza-unitate bereko kideztat hartuko dira, "neba-arrebatzat" hartuko dira. Horretarako, harrera-egoera egiaztatu beharko da.

Guraso bakarreko familiek ehuneko 10eko hobaria izango dute jarduera bereko ondoren-goengatik, guraso bakarreko familia dela egiaztatu ondoren.

Ehuneko 30eko hobaria ezartzen da jardueraren ikasturte berean edo udako jardueraren aurreko ikasturtean Eusko Jaurlaritzan hezkuntza-arloko eskumena duen Sailaren deialdian beka jaso duten pertsonentzat.

Aurreko paragrafoetan deskribatutako kasuetan, eskatzaileek hobaririk gabe ordaindu beharko dute tarifa, eta, ondoren, Kuadrillak aldea itzuliko die, aurkeztutako dokumentua egiaztatu ondoren.

Ezingo da hobaririk konbinatu, eta hobari bakarra aplikatuko da haur bakoitzeko.

11. artikulua

a. Kuadrillako Gizarte Zerbitzuen proposamen idatzi arrazoituaren arabera, ehuneko 50 eta ehuneko 100 arteko (ordainketa egitetik salbuetsita geratuko dira) hobaria aplikatuko zaie zaurgarritasun sozial eta/edo ekonomiko bereziko egoeran dauden pertsonari. Kasu horretan, hobaria zuzenean aplikatuko zaio aplikatu beharreko zenbatekoari.

b. Jardueren eta ikastaroen hobaria edo doakotasuna onartu ahal izango da, interes publiko arrazoiengatik hala justifikatzen den kasuetan. Onarpen hori neurria aplikatu eta hurrengo kuadrillako batzarrean berretsi beharko da.

INFORMAZIO PUBLIKOAREN ESKURAGARRITASUNA

12. artikulua

Ordenantza honek eskuragarri egon beharko du erakundearen webgunean, erraz eskuratzeko moduko leku batean.

Arabako Mendialdeko Kuadrillak antolatutako jarduerak eta ikastaroak, bere webgunean eta hedabideetan ez ezik, eskualdeko udalerriei, kontzejuei eta gizarte-erakundeei jakinaraziko zaizkie.

Jarduerari eta ikastaroari buruzko informazioa erraz irakurtzeko formatuan egongo da eskuragarri.

PREMIA BEREZIAK

13. artikulua

Dibertsitate funtzionala duten pertsonei buruzko informazioa bilduko da, eskari espezifikoki behar bezala erantzuteko.

GENEROAGATIKO DISKRIMINAZIOA

14. artikulua

Nolanahi ere, Arabako Mendialdeko Kuadrillak antolatutako jarduera eta ikastaroetan ez da inolako diskriminaziorik onartuko sexuagatik, genero-identitateagatik eta sexu-orientazioagatik.

Izena emateko unean, erabiltzaileek de facto konpromisoa hartuko dute Kuadrillako diskriminazio mota horren aurkako protokoloa betetzeko.

ARRAZAGATIKO DISKRIMINAZIOA

15. artikulua

Nolanahi ere, Arabako Mendialdeko Kuadrillak antolatutako jarduera eta ikastaroetan ez da inolako diskriminazio arrazistarik, xenofoborik edo ijitoen aurkakorik onartuko.

Izena emateko unean, erabiltzaileek de facto konpromisoa hartuko dute Kuadrillako diskriminazio mota horren aurkako protokoloa betetzeko.

Azken xedapen bakarra. Arabako Mendialdeko Kuadrillako Batzarrak hartutako erabakiaren bidez 2026an onartutako ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta argitaratzen den datatik aurrera aplikatuko da, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da indarrean.

I. ERANSKINA. Arabako Mendialdeko Kuadrillak ematen dituen ikastaroen eta jardueren prezio publikoak

KULTURA- ETA KIROL- JARDUERAK	
Prezioa hiruileko (ordu 1/astean)	30,00 €
Prezioa hiruileko (ordu 1,15/astean)	37,50 €
Prezioa hiruileko (ordu 1,30/astean)	45,00 €
Prezioa hiruileko (2 ordu/astean)	60,00 €
Prezioa hiruileko (2,30 ordu/astean)	75,00 €
Prezioa hiruileko (3 ordu /astean)	90,00 €
Prezioa hiruileko (4 ordu /astean)	120,00€
Udalekuak	
UDA kirola (5 egun)	80 €
Udaleku (aste 1)	25 €
Udaleku (2 aste)	45 €
Udaleku (3 aste)	65 €
Udaleku (4 aste)	80 €
Baserri kanpalekua (5 egun)	80 €
Uda Gaztea (5 egun)	80 €
Zaldi Harana zaldi kanpua (5 egun)	80 €
Udako jarduerak	
Futbol txapelketa	2 €
Hondartzara autobusak	20 €
Gaztebusak	7 €

KULTURA- ETA KIROL- JARDUERAK	
Umeen gabonetako parkea	
Adingabeak	3 €
Garraiatutako adingabeak	5 €
Laguntzaileak	0 €
Garraiatutako laguntzaileak	3 €
Euskara- jarduerak	
Tailerra – egun bat	5 €
Ikastaroa – aste bat	5 €
Oxigenoa Euskarari - hiruilekoa	30 €
Helduen Bertso eskola – urtekoa	5 €
Gu ere bertsoan - urtekoa	5 €
Mintzaguneak- urtekoa	5 €
Berdintasun- jarduerak	
Tailerra – egun bat	5 €
Ikastaroa – aste bat	5 €
Jarduera turistikoak	
Bisita gidatuak	4 €

II. ERANSKINA. ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAK ANTOLATUTAKO UDAKO JARDUERAK ETA IKASTAROAK EGITEAGATIK APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

- Jarduerak eta ikastaroak martxoan eskaintzen dira, urte bereko udarako.
- Izena emateko azken eguna ekaineko lehen ostirala izango da.
- Jarduera bakoitzerako onar daitekeen adina honako hau da:

JARDUERA	ADINA
UDA KIROLA	11 – 14
UDALEKUAK	04 – 12
BASERRI KANPALEKUA	06 – 12
UDA GAZTEA	11 – 16
CAMPUS HIPICO ZALDI HARANA	6 – 15

- Garraioa egongo da hala behar duten eta inskripzioa egiteko unean jakinarazten duten pertsonentzat.

III. ERANSKINA. ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAK EUSKARA IKASTAROAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

- Ikastaro bakoitzaren adin tarte eta iraupena honakoa da:

JARDUERA	IRAUPENA	ADINAK
TAILERRAK	Beharren arabera	Tailerraren arabera
IKASTAROAK	Beharren arabera	Ikastaroaren arabera
OXIGENOA EUSKARARI	Hiruhilekoa, egutegia eta aurrekontuaren arabera	11-16 (DBH maila)
HELDUEN BERTSO-ESKOLA	Urte osokoa, astean ordubete	Helduak
MINTZAGUNEAK	Urte osokoa, astean ordubete	Helduak

V. ERANSKINA. ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAK GAZTEBUS ZERBITZUA EMATEAGATIK APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

- Gaztebus zerbitzua eskatu ahalako garraio-zerbitzua da, eta Arabako Mendialdeko Kuadrillak eskaintzen du, koadrila barruan kultura-ekitaldietara joatea errazteko.
- Gaztebus zerbitzuak berekin dakar ekitaldiak autobusez, taxiz edo ekitaldiaren beharretara egokitzen den beste edozein garraibidez egiteko garraioa erraztea.
- Gaztebus zerbitzuaren helburua eskualde barruko garraioa izango da; ez da aurreikusten zerbitzua eskualdetik kanpotik eskualde barruko ekitaldietara ematea. Kasu jakin batzuetan, zerbitzua eskualdetik kanpo ematea aurreikus daiteke, betiere justifikatuta.
- Gaztebus zerbitzua 16 urtetik gorako pertsonak erabili ahal izango dute.
- Eskatzen duten eskualdeko administrazio-batzarrei edo irabazi-asmorik gabeko elkartei soilik emango zaie Gaztebus zerbitzua.
- Eskaera ekitaldiaren data baino hilabete lehenago egingo da.
- Gehienez ere, Administrazio Batzarraren edo Irabazi Asmorik Gabeko Elkartearen bi ekitaldi egingo dira udalerrri bakoitzeko, edo esleitutako aurrekontua agortu arte.
- Interes publikoko kasuetan, esleitutako aurrekontua Gaztebusen partidara handitu ahal izango da.
- Kuadrillak, eskaera jaso ondoren, gehienez ere bi asteko epean onartu edo baztertuko du eskaera, beharrezkoa balitz, eta horretarako baldintzak ezarriko ditu. Zerbitzua emateko gutxieneko erabiltzaile kopurua ezarriko da.
- Erakunde eskatzaileak kudeatuko ditu garraio-plazak.
- Nolanahi ere, erakundeak garraioaren arduraduna aurreikusi eta identifikatu beharko du.
- Erabiltzaileen zerrenda bildu ondoren, erakundeak teknikariekin adostuko du pleitatu beharreko garraibidearen egokitasuna, ekitaldia baino hiru egun lehenago.
- Zerbitzuaren ordainketa geroratu ahal izango da ekitaldia egin ondoren, garraioaren erabiltzaileen azken kopurua egiaztatu ondoren.
- Araudi hori abian jartzen denean, urtero berrikusiko da, eskualdeko JJAA eta ASALen beharretara egokitzeko.
- 16 urtetik beherakoek gurasoekin edo legezko tutoreekin batera erabili ahal izango dute zerbitzua. 16 urtetik gorako adingabeek beren gurasoen edo legezko tutoreen idatzizko bera-riazko baimenarekin erabili ahal izango dute zerbitzua, zerbitzuaren erabilera bakoitzerako.